Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

3852

EBAZPENA, 2009ko maiatzaren 20koa, Garapen Lankidetzarako zuzendariarena, «Rehabilitación del combinado de productos de construcción de Güines (Cuba)» proiektuari zati batean uko egiteko onarpena ematen duena. EEEk (Energiaren Euskal Erakundea) aurkeztu zuen proiektua, Garapenean Lankide Izateko eta Laguntzeko Fondoaren konturako 2002ko deialdiaren barruan.

Garapen Lankidetza Sustatzeko Fondoaren konturako proiektuak 2002. ekitaldian diruz laguntzeko deia egiten duen eta laguntza horiek arautzen dituen uztailaren 9ko 171/2002 Dekretuak honela dio 28. artikuluaren 1. paragrafoan: erakunde eskatzaileak jarduera gauzatzerakoan sartu nahi dituen aldaketen berri berehala emango dio Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari eta, aldi berean, aldaketa horiek aurrekontuan izango duten eragina zehaztu beharko du. Proposatutako aldaketak onartzea Garapen Lankidetzarako zuzendariaren eginkizuna da.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu baten bidez, EEEri 340.610,01 euroko diru-laguntza eman zitzaion «Rehabilitación del combinado de productos de construcción de Güines (Cuba)» proiektua gauzatzeko.

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– EEEri baimena ematea Garapenean Lankide Izateko eta Laguntzeko Fondoaren konturako 2002ko deialdiaren barruan aurkeztutako «Rehabilitación del combinado de productos de construcción de Güines (Cuba)» proiektuari zati batean uko egiteko. Beraz, hirugarren ordainketaren zati bat itzuli egin behar da (9.408,82 euro).

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke. Ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunean hasi eta hilabetekoa izango da horretarako epea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 20a.

Garapen Lankidetzarako zuzendaria,
IGOR IRIGOYEN FUENTES.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

3852

RESOLUCIÓN de 20 de mayo de 2009, del Director de Cooperación al Desarrollo, por la que se aprueba la renuncia parcial para el proyecto «Rehabilitación del combinado de productos de construcción de Güines (Cuba)» presentado por la entidad EVE - Ente Vasco de Energía dentro de la convocatoria de ayudas a proyectos con cargo al Focad 2002.

El apartado 1 del artículo 28 del Decreto 171/2002, de 9 de julio, que regula y convoca ayudas a proyectos con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo para el ejercicio 2002, establece que la entidad solicitante deberá informar inmediatamente a la Dirección de Cooperación al Desarrollo de las modificaciones que pretenden introducirse en la realización del proyecto especificando las repercusiones presupuestarias que implican. Corresponde a la Dirección de Cooperación para el Desarrollo aprobar las modificaciones propuestas.

Por Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, se concedió a la entidad EVE - Ente Vasco de Energía una subvención de 340.610,01 euros para la realización del proyecto Rehabilitación del combinado de productos de construcción de Güines (Cuba).

RESUELVO:

Primero.– Autorizar la renuncia parcial solicitada por EVE - Ente Vasco de Energía en el proyecto Rehabilitación del combinado de productos de construcción de Güines (Cuba) presentado dentro de la convocatoria de ayudas a proyectos con cargo al Focad 2002. Esto supone la devolución parcial del tercer pago que asciende a 9.408,82 euros.

Segundo.– Contra la presente Resolución, se podrá interponer recurso de alzada en el plazo de un mes, a partir del día siguiente a su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de mayo de 2009.

El Director de Cooperación al Desarrollo,
IGOR IRIGOYEN FUENTES.